



Prensa Oharra Nota de prensa

Gorbeiako parke naturalak 25. urteurrena ospatuko du azoka handi batekin eta dozenaka jarduerarekin

Datorren igandean, maiatzak 19, Ondategi eta Gopegin Gorbeiako parke naturalaren azoka izango da, eta han izango dira udalerrien, ekoizleen, artisauen, nekazarien eta abeltzainen ordezkariak. Ingurumen hezkuntzako jarduerak eta haurrentzako antzerkia ere egongo dira

Basoek, larreek, txilardiek, padurek, hezeguneez, ibaiek eta harkaitzek osatzen dute Araba eta Bizkaiaren artean dagoen parke natural ospetsu hau. Euskal Autonomia Erkidegoko gune natural babesturik handiena da, 20.000 hektarearekin

Gasteiz, 2019ko maiatzaren 13a. Arabako Foru Aldundiak Gorbeia Parke Naturalaren azoka antolatu du datorren iganderako, maiatzak 19, Ondategi/Gopegin, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Urkabustaizko, Zigoitiko eta Zuiako (Araba) udalekin eta Areatzako, Arteako, Orozkoko, Zeanuriko eta Zeberio (Bizkaia) udalekin lankidetzan. Lehen ekitaldia izango da Gorbeiako mendigunea parke natural izendatu zeneko 25. urteurrena ospatzeko 2019an egingo diren hainbat ekitaldiren artean.

Basoek, larreek, txilardiek, padurek, hezeguneez, ibaiek, leizeek eta harkaitzek osatzen dute Araba eta Bizkaiaren artean dagoen parke natural ospetsu hau. Euskal Autonomia Erkidegoko gune natural babesturik handiena da, 20.000 hektarea baino gehiago baititu.



Familia guztirako egitaraua

Egitarauko jardueren artean daude parke naturaleko larreetan ibiltzen diren arraza autoktonoetako 170 zaldi, behi, ardi eta ahuntz baino gehiagoren abere erakusketa, ekoizleen eta artisauen azoka, multiabentura (tirolina eta rokodromoa) eta Gorbeia parke naturalari buruzko animazioko film labur bat. Era berean, 'Ezagutu euskal artilea' muturbeltz erakustaldia eta 'Azken Eguzkilorea' haur antzezlanaren egongo dira.

Egitaraua osatzeko, informazio erakusketak egingo dira parkeko udalerriei eta haien balio historiko-arkitektonikoei, naturalei eta kulturei buruz, Asiako liztorrari buruz eta mendiko larreen LIFE OREKA MENDIAN Europako proiektuari buruz, eta foodtruck-a eta beste jarduerak ere izango dira han.

1994ko ekainaren 21ean argitaratu zen Gorbeia aldea parke natural izendatzeko dekretua. 25 urte beranduago, datorren ekainaren 21ean, erakunde ekitaldi bat egingo da egun hori gogoratzeko eta parkearen biodibertsitate eta geologia balioak eta nekazaritza-abelzaintza, basogintza eta kultura alderdiak gordetzeko egin diren aurrerapenen balioa nabarmentzeko.

Zehazki, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Saila, Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila ekitaldi egitarau zabala prestatzen ari dira Arabako parke natural mitiko eta ospetsuenetakoaren urteurrena ospatzeko.

Ekitaldi hauek egingo dira, besteak beste: Gorbeia parke naturalaren azoka igande honetan, maiatzaren 19an, mendi martxa Gorbeia tontorreraino, parke naturalaren biodibertsitate balioei buruzko animazioko film laburraren emanaldi berezia, erakusketa ibiltari bat Gasteizen eta Bilbon, eta bi dibulgazio jardunaldi, Gasteizen eta Bilbon, biodibertsitatea kontserbatzeko buruz.

